

HAUTESKUNDE LEGEA. Legebiltzarreko Mahaiak tramitazioaren izaera erabakiko du etzi

IUk eragotzi egingo du EAJ eta EAren proposamena premiaz bideratzea

Ohiko bidetik zaila izango da proposamena hauteskundeak deitu baino lehen bozkatzea

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

Ezker Batuko (EB-IU) legebiltzarkide Kontxi Bilbaok EAJk eta EAK hauteskunde legea aldatzeko aurkeztutako proposamena premiaz bideratzearen aurka bozkatuko du etzi, Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren bileran. Horrek eragotziko luke ekimenari presazko tramitazioa ematea (kontrako botoa eman-go dute PPK, PSE-EEK eta EB-IUk; alde, berriz, EAJk eta EAK), eta, hala, ohiko prozedurarekin aztertu beharko da.

Proposamena bide normaletik joanez gero, nekez ailegatu-ko litzateke garaiz datozen bozketetan indarrean izateko (apirilaren 1ean egingo da hauteskundearen deialdi ofiziala). 1987an egindako legearen aldaketa berrogei egunetan onartu zen, baina premiazko prozedurarekin bideratu zelako.

Bilbaok berak hedabide honi azaldu dio premiaz tramitatzearen aurka bozkatuko duela, erreformaren aurka dagoelako. Gainera, ez du uste jarrera horrek gobernukideen arteko errezelarik sortuko duenik, EAJ eta EA «jakinaren gaine» direlako. «EAJk zein EAK badakite EB-IUk zer pentsatzen duen, eta aurrera egiten badute sostengurik ez diegula emango jakinda ere, Batasunaren adostasuna dutelako izango da, horixe baitute onartzeko era bakarra».

Bestalde, Araba Buru Batzarreko (ABB) lehendakari Iñaki Gerenabarrenak aitortu zuen

KONTXI BILBAO

IUko kidea Legebiltzarreko Mahaiak

«EAJk eta EAK aurrera egiten badute, EB-IUk lagunduko ez diela jakinik, Batasunarekin akordioa dutelako izango da»

IÑAKI GERENABARRENA

EAJko ABBko lehendakaria

«Batasunarekin itunik ez da izango. Ekimenaren aldeko botoan batzuek bat egiten badugu, aldiz, beste kontu bat izango da»

Sozialista Abertzaleekin (SA) hitz egingo dutela proposamenaren inguruan, baina inongo itunik eratu gabe. «Beste kontu bat izango da, jakina, azkenean talde politiko batzuk ekimenaren aldeko botoan bat egiten badugu».

EAJk dio 1987tik saiatu dela «urterik urte» legea aldatzen

ABBko buruak aipatu zuen EAJ, 1987tik, «urterik urte» saiatu dela legearen erreforma lortzen, «eta orain sortu da, ahal dugulako eta unerik aipose-na delako».

EAJ eta EAren proposamenak nahi du Arabako hautesbarrutiak zazpi izatea, azken urte-



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Kontxi Bilbao Ezker Batuko legebiltzarkidea, artxiboko irudi batean.

etako hiruren orde; Bizkaian, berriz, lautik seira igaroko litzateke. Ondorioa da, Gasteizek, adibidez, garrantzia galduko lukeela, gaur egun baino bost biltzarkide gutxiago hautatuz.

PPk nahiz PSE-EEK «elektoralismoa» leporatu diote proposamenari, baina Gerenabarrenak ukatu egin zuen, datoren maiatzaren herrietan zer bozkatuko ote duten inork ez dakiela esanez.

Halaber, EAKo lehendakari Begoña Erraztik ontzat jo zuen aldaketa, Arabako kasuan, «Gasteizek hainbesteko eragina izanda, beste alderdi batzuek behar baino ordezkartza gutxiago baitute».

Erraztik esan zuen aldaketak helburu argia duela, «eskualde historikoei euren ordezkartza izatea, besterik ez». Hain zuzen, gizartearen ordezkartza hobetu aldera, hauteskunde legea aldatzeko eskubidea dagoela gehitu zuen.

Bestalde, Espainiako Gobernuak aztertu egingo du Espainiako Auzitegi Konstituzionalen erreformaren aurkako helegitea aurkezteko modua, PPko Eusko Legebiltzarreko taldeko buru Jaime Mayor Orejak atzo iragarri zuenez. Balizko aldaketa «egundoko tranpatzat» hartu zuen: «Erreforma esan nahi du Arabaren konkista nahiz zigorra».

LABURAREN

Donostiako Torturatuak Garraxia elkarte sortu berriak manifestaziora deitu du hilaren 16an

Tortura desagerraraztea helburu duen elkarte sortu dute, Donostiako Torturatuak Garraxia izenarekin. Joan den urtean 31 donostiar torturatu zituztela ohartarazi du elkarteak ohar baten bidez. Torturaren Aurka-ko Taldeak proposatutako bederatzi puntuak bere egin, eta «azken txokoraino» eramango dituztela diote. Otsailaren 16an, 13:00etan Bulebarretik abiatuta, manifestazioa egitera deitu dute.

ETAren biktimei omenaldia egin die Barakaldoko Udalak

ETAren biktimei omenaldia egin zieten atzo Barakaldon, Udalak antolatuta. Juanjo Novellaren *Elkarbizitza* eskultura inauguratu ondoren, «biktima guztien oroimena» betikotu behar dela esan zuen Carlos Pera alkateak. Gorka Landaburu kazetariak Udalak omenaldia egin izana eskertu zuen, eta gauza bera egiteko eskatu zien beste udalei. Barakaldon ETAK hildako 16 lagunei urrezko domina emateko proposatu zion Udalari Ana Crespok, biktimen elkarten izenean.

Ikurren Legeari osoko zuzenketa egingo dio Nafarroako Ezker Batuak

Nafarroako Gobernuak proposatutako Ikurren Legea proiektuari osoko zuzenketa egingo dio IUN-NEBek, Felix Taberna koordinatzaile nagusiak atzo jakinarazi zuenez. Egitasmoa Espainiako Konstituzioaren aurkakoa dela argudiatu zuen Tabernak. Besteak beste, ikurrina erabiltzen duten udalak diruz zigortzea kritikatu zuen.

Barandallaren aldeko kontzentrazioa egin dute preso ohiek

Bautista Barandalla aska dezaten eskatzeko baraua egiten ari diren preso ohiek elkarretaratzea egin zuten atzo, Iruñean, Nafarroako Probintzia Auzitegiaren aurrean. *Bautista etxia! 92. artikulua orain leloa* zeraman pankartaren atzean bildu ziren 50 bat lagun, 11:00etatik 11:30 arte. Barandalla gaur ospitalera eramanez dute. Arrasaten ere baraualdia egin dute 40 lagunek asteburuan, eta gaur manifestazioa egingo dute, 19:00etan.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

BIZKAIAKO
HIZKUNTZA ESKOLA
OFIZIALAKESCUELAS
OFICIALES DE IDIOMAS
DE BIZKAIA

BIZKAIAKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK MATRIKULA LIBREA 2002 • 2003

Matrikula sobreak noiz hartu:

Otsailaren 3tik 18ra. Eskola bakoitzeko Atezaindegiko ordutegian.

Matrikulea noiz egin:

Matrikula sobreak agertzen diren egun eta orduetan.

Oharrak:

- Matrikula sobrea norberari jagokan HEOean hartuko da.
- NANa eukitea beharrezkoa da matrikulea egiteko.
- Azterketen egutegia HEO bakoitzean jarriko da agiriari maiatzaren 1etik 15era.

Bizkaiko HEOen esparruak:

Bilbo: Bizkaia, ondoko herriak izan ezik: Barakaldo, Sestao, Trapagaran, Ortuella, Abanto, Zierbana, Muskiz → (HEO Barakaldo), Mallabia, Ermua, Zaldibar → (HEO Eibar). Durangaldea, Zornotza, Markina, Ondarroa aldea → (HEO Durango). Leioa, Getxo, Berango, Sopela, Barrika, Plentzia, Gorliz, Lemoiz, Portugalete, Santurtzi, Urduliz → (HEO Getxo).

Bilboko HEOen bakarrik:

Alemaniera (Gebon ere bai, baina Oinarrizko Zikloa bakarrik), Gaztelania Atzerriarrentzat, Errusiera eta Italiara (Oinarrizko Zikloa bakarrik).

Informazio gehiagorako jo zeure eskolara:

Barakaldoko HEO ☎ 944.38.05.17 Web → <http://www.gaztenet.com/eoi>Bilboko HEO ☎ 944.75.49.72 Web → <http://www.eoi-bilbo.net>Durangoko HEO ☎ 946.20.33.42 Web → <http://www.eoidurango.net>Getxoko HEO ☎ 944.80.52.39 Web → <http://www.euskalnet.net/eoiget>Osakidetza
Servicio vasco de salud

2002ko ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA DESZENTRALIZATUA. GURUTZETAKO OSPITALEA.

Otsailaren 15ean, ondoko zerrendan agertzen diren probak izango dira behean zehaztutako data, ordu eta lekuetan, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Gurutzetako Ospitaleak deitutako aukeraketa-prozesuaren barruan:

GURUTZETAKO OSPITALEA

(Gurutzetako plaza z/g Gurutzeta, Barakaldo)

Bigarren Proba egin behar duten kategoriak:

DATA	ORDUA	KATEGORIA	ARETOA
03-02-15	10.00	BIOLOGO, FAKULTATIBO MEDIKO ETA TEKNIKOEEN LANBIDE-TALDEAN	Gurutzetako Ospitaleko Eginkizun-aretoa

Aretoa noiz irekiko den: Probaren hasiera ordua baino 15 minutu lehenago.

Aretoa noiz itxiko den: Aurreikusitako orduan; proba hasi ondoren ezin izango da inor sartu.

Informazio gehiago behar izanez gero, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Giza Baliabideetako Zuzendaritzako Hautaketa-Zerbitzura jo dezakezu, telefono hauetara deituz:

• 945 006 004 • 945 006 176 • 945 006 150

Edo, Gurutzetako Ospitaleko Giza Baliabideetako Zuzendaritzako telefono hauetara:

• 946 006 204 • 946 006 205 • 946 006 208

www.osakidetza-svs.org

www.hospitalcruces.org